

Oraindik ere uste dugu, komunismoaren erdigunea Moskun dagoela. Eta beharbada hala izanen da beti, beste komunismo motaren bat nagusitzen ez deino.\* Baina, oro\* har, Moskuk ez du orain Europako Alderdi Komunistengan aspaldiko agintea. Bestalde, sozialismoa ez da gehiago Moskurekiko lehen erreferentziaz pentsatzen.

Polizentrismo honetan, Txinak bere sozialismo modua baldin badu, agian\* Kubak ere bai berea, etab. etab. Europak ere berea ukan dezakeela pentsatzen dute askok. Izan ere, orain arte beste inon topatu ez dituen situazioak aurkitzen ditu komunismoak Mendebaldeko\* demokraziatzko Gobernuetan.

Demokrazia honen ustela eta partzialkeria ongi erakutsiz ere, behin eta berriro enganiaturik bizi garela frogatu\* arren, demokrazia formal honi atxekirik\* bizi nahi du europarrak. Mugimendu askatasuna, biltzar askatasuna, alderdi hautapena, sindikatu aukerapena, etab. Zail, nahikunde horik\* kontutan hartu gabe, sozialismo bat Europan eraikitzea! Diktadura bat litzateke, jendearen ustetan.

Demokraziatzko sistema horietan oposizioan bizi izan da orain arte Alderdi Komunista. Eta oposizioan irauteko esperantza eta gogoarekin, oraintsu arte. Kapitalismoaren krisi nagusiaren zain.

Azken urteotan, ordea, agintera joatea erabaki duela dirudi. Eta aginte hori hartzeko, krisi biribil horren zain egoterik ez dago, noiz datorren ikusten ez baita (eta gainera, etorri den une bakarrean, ezkerari ez baina eskuinari —faxismoari— eman baitzaio agintea).

Demokraziatzko sistema batetan, legez jo behar da agintera, joko legeak onharturik. Maioria baten bidez. Horretarako, besterekin\* bat egin behar. Azken urteotan, antza denez, adiskidetu nahiz dabil jendea: Aliantza eta Paktua (Espainiako AK), Hautsi-mautsi\* Historikoa (Italiako AK), Programa Bateratua (Frantziako AK), Militarren Euskarria\* (Portugaleko AK).

Baina norekin bat egin, eta zer kondiziotan goberna? Herri bakoitzean, lekuko arazoan arabera,\* ba dira desberdintasunak. Italian, sozialisten harriduraz, Alderdi Komunistak Kristau Demokrazia bilatzen du lehen partaide bezala. Frantzian, Alderdi Komunistaren bidelagunik aukeratuena, dudarik gabe, Alderdi Sozialista izan da, baina «herri osoa» ere bai, Marchais lehen sekretariaren\* deia araberak. Espainian, oposizioko indar eta mugimendu guztiak dira Alderdi Komunistaren partaide edo partaidegai.

Zer kondiziotan goberna? Hori da, memento honetan Alderdi Komunistek Europan duten hauzirik zorrotzena. Esan\* nahi baita, sozialismoan demokraziaren problema. Puntu honetan, Portugalen Alderdi Komunistak egiten duen jokoak ba ditu bere arriskuak. Alderdi Sozialistek, bai Frantzian eta bai Portugalen, memento honetan beti alderdien eta sindikatuen aniztasunaren\* alde agertzen badira, horrexegatik da baina zuzen: sozialismoaren barnean demokrazia salbatzeagatik.

Ba dirudi, komunisten artean, Europan, bi bidetan bantzen direla joerak:

- Portugaldarren joera, Frantziako Alderdi Komunistak eusten\* diolarik eta Sobietar Batasunekoak lagunduz. Portugaleko komunistek ez dute inorengandik deus\* ikasi nahi, eta gutiago sozialistengandik. Elkar lana ez dela gehiegi zabaldu behar pentsatzen dute. Behin agintea hartuz gero, euts\* horri Alderdiaren nortasuna gogorrean babestuz.
- Italiarren eta espainolen joera. Hauentzat, pluralismoa joko lege bat da. Sindikatuen burruka autonomia ere onhartua da, etab. Italiako Alderdi Komunistaren XIV. Kongresuan garbi ikusi da joera honen zernolaketasuna. Portugaleko eboluzioa ez dela arrisku gabea aitortzen dute; eta Estatu



Enrico Berlinguer  
Hautsi-mautsi Historikoa

hartan Kristau Demokraziaren debekatzeak eta sindikatu bakarraren hautatzera behartzeak zalan-tza bat baino gehiago sortzen du italiar komunisten artean, Enrico Berlinguer idazkari\* nagusiak adierazi duenez. Alderdi eta Mugimendu guzti-tzat eskubide politikoa beharrezkoa dela esan du Kongresu horretan Berlinguer jaunak. (Joan Mari Torrealday)

## ALEMANIA

### Herr Strauss

«Perilosa\* da gizon hau» dio Pariseko *Le Monde* egunkari sonatuak Frank Josef Strauss jaunari buruz. Eta, entzun dudanez, hola pentsatzen duena ez da *Le Monde* bakarrik, ez eta kazetari zenbait, aleman zenbait baizik. Zenbait baino gehiago, agian.\*

«Mende honen azken egunerarte bandidu bat bakarrek ere ahoa irekitzeko ausartziarik\* ukan ez dezala lortuko dut nik» deklaratu du, guti dela, Strauss jaunak. «Pizti gorriaren hatzaparretatik» bere herria libratuko dela zin\* egin du. Pizti gorria zer eta zein den ba dakigu. Bandiduak zeintzu diren ere bai. Alemaniako terroristak, eta hauekin batean ezkertiarak oro,\* sorginak bezala sutara bota nahi lituzke politikari honek.

Ez, Strauss ez da zerbezalekuetako gizona. Politikaria da, CDUkoa, kristau demokrata. Kantzelari\* izan gura luke, Alemaniako gobernaria. Eta ez da ezinezkoa. Ez da ikusten kristau demokraten artean hoberik. Eta hauteskundeak\* laster dira, datorren urtean. Horien zain dago «Bavariako zezena».

Gizon honek gehiegi gogoratzen du orain berrogei urte gertatutako zerbait. Sinplekeria litzateke, edo nazismo berri bat edo eskuin puntako erregimen bat ekarriko lukeela pentsatzea. Gauza segura litzateke, ordea, Alemaniak eskuinera joko lukeela, polizia indartuko lukeela, Estatu sendotuko lukeela. Demokrazia alemanaren kaltetan. Terroristak, iraultza, gorriak besterik ez du ikusten antza, gizon honek.

Kristau Demokraziako norbaitek esan duenez, «honen programarekin, inguruko herriek arriskutzat hartuko lukete Alemania berriro ere». (Joanes Lekerika)